

**2015EKO AZAROAREN 26AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita seia.

HILABETEA: Azaroa.

URTEA: Bi mila eta hamabost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak

KOLDO AGIRRE MUJICA
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS

ETORRI GABEAK:

ANGEL REDONDO FERNANDEZ (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak).

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2015eko urriaren 29ko akta onartzeko proposamena.

2015eko urriaren 29ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute, berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- KREDITU ALDAKETA: kreditu gehigarriak, 10. zenbakia.

Alkate jaunak (EAJ-PNV), proposamena ezagutzera eman du:

GAIA.- Kreditu Aldaketa. 10. Kreditu Gehigarrien Espedientea.

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastua egin beharra izanik eta hau finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 10. Kreditu gehikuntzen bidez 113.265,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.

“GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

<i>Aurrekontuko kontu saila</i>	<i>Kontzeptua</i>	<i>Kredituak</i>		
		<i>Egungoak</i>	<i>Aldaketak</i>	<i>Behin betikoak</i>
1.9000.421.162.10. 01	Sasieta M.: hondakinen bilketa	422.063,00	67.960,00	490.023,00
1.9000.421.162.30. 01	Sasieta M.: hondakinen tratamendua	281.375,32	45.305,00	326.680,32
GUZTIRA		703.438,32	113.265,00	816.703,32

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

<i>Sarrerren kontzeptua</i>	<i>Baliabidearen kontzeptua</i>	<i>Sarrera handiagoak</i>
870.01	Kreditu gehigarriak finantzatzeko gerak.	113.265,00
GUZTIRA		113.265,00

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ezer ez dute proposamenarekiko adierazi.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 6 (Beasaingo EH BILDU)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

3.- ALDIZKAKO EPEMUGA EZ DUTEN ZORREN GERORAPENERAKO ETA ZATIKAPENERAKO IRIZPIDEAK.

Alkate jaunak (EAJ-PNV), hazienda batzordeko proposamenaren berri eman du:

“2009ko azaroaren 27an onartu eta behin eta berriro luzatu den erabakiaren arrazoiek jarraitzen dute. Horregatik, hain zuzen ere, Hazienda Batzordeak Udalbatzari **proposatzen dio 2.016ko abenduaren 31ra arte lehengoko akordioaren indarraldia luzatzea.**

“Ekonomia eta finantza alorrean gaur egun bizi den krisialdi familietan eta enpresen eguneroko trafikoan likidezia falta eragiten ari da. Likidezia hori behar-beharrezkoa dugu gure sistema ekonomikoan dauden obligazioei, eta besteak beste, zerga arlokoiei, aurre egin ahal izateko. Hau guztiarengatik eta udal ogasunari egin beharreko ordainketak erraztearen alde kontutan izanik egungo finantza krisialdiak sorturiko ezohiko inguruabarrak, egokia ikusi da aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapen eta zatikapenerako irizpideak arautzea..

Azaldutakoaren arabera eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 64.5 artikuluan xedatutakoaren babespean, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio:

1.- Borondatezko epean dauden aipatutako zorren ordainketa geroratu eta zatikatu ahal izango da betebeharpekoaren egoera ekonomiko eta finantzarioak, organo eskudunaren iritziz, ordainketa egitea eragozten badio aldi baterako.

2.- Ordainketak Geroratzeko eta Zatikatzeko irizpide orokorrak ondorengo hauek izango dira:

a. 800 eurotik beherako zorrak / Para deudas no superiores a 800 euros:

- Gerorapena / Aplazamiento:

- a.1. 100 eta 200 euro artean /De 100 a 200 euros..... 1 hilabete /1 mes
- a.2. 201 eta 400 euro artean / De 201 a 400 euros..... 2 hilabete/2 meses
- a.3. 401 eta 600 euro artean /De 401 a 600 euros..... 3 hilabete/3 meses
- a.4. 601 eta 800 euro artean /De 601 a 800 euros.....4 hilabete/4 meses

- Zatikapena/ Fraccionamiento

- a.5. 100 eta 200 euro artean /De 100 a 200 euros..... 1 hilabete /1 mes
- a.6. 201 eta 400 euro artean / De 201 a 400 euros..... 2 hilabete/ 2 meses
- a.7. 401 eta 600 euro artean /De 401 a 600 euros..... 3 hilabete / 3 meses

a.8. 601 eta 800 euro artean /De 601 a 800 euros.....4 hilabete / 4
meses

b. 800 eurotik gorako zorrak / Para deudas superiores a 800 euros:

- Gerorapena / Aplazamiento:

b.1. 800 eta 12.000 euro artean /Desde 800 a 12.000..... 6 hilabete/
6 meses

b.2. 12.001 eta 24.000 euro artean /Desde 12.001 a 24.000.....12
hilabete/12 meses

b.3. 24.001 eta 36.000 euro artean /Desde 24.001 a 36.00018 hilabete/18
meses

b.4. 36.001 eurotik aurrera /A partir de los 36.001..... 24
hilabete/24 meses

- Zatikapena / Fraccionamiento:

b.5. 800 eta 12.000 euro artean /Desde 800 a 12.000..... 6 hilabete /
6 meses

b.6. 12.001 eta 24.000 euro artean /Desde 12.001 a 24.000.....12
hilabete/12 meses

b.7. 24.001 eta 36.000 euro artean /Desde 24.001 a 36.000 18
hilabete/18 meses

b.8. 36.001 eurotik aurrera /A partir de los 36.001..... 24
hilabete/24 meses

Organo eskudunak, kasu bakoitza aztertu eta gero, gerorapen edo zatikapena onartzea erabakiko du. Organo eskudunak, zehaztuta ez dauden ordainketa epeak onartu ahal izango ditu, beti ere zehaztuta dagoen gehiengo epea gainditzen ez den bitartean.

3.- Borondatezko epea amaitu ondorengo 12 hilabete edo gutxiagoko epeko gerorapen eta zatikapenak ez dute interesik sortuko.

4.- Berandutza eta zatikapena onartuz geroko lehen urtea igaro ondoren, zordundutako kopuruengatiko diruaren interes legala sortuko da.

5.- Oro har, araudi honen arabera emandako gerorapen eta zatikapenetan ez da bermerik eskatuko.

6.- Epealdi bakar baten ordainketa betebeharra haustea nahikoa izango da zatikapen edo gerorapen emakida bertan behera gelditzeko eta epe exekutiboa hasteko. Horrela, geroratutako zorra, interesak eta dagokion gainkargua eskatuko dira.

7.- Araudi honetan xedatutako baldintzen arabera gerorapenak eta zatikapenak emateko Alkateari ematen zaio eskumena, Hazienda Batzordearen aurretiazko aldeko eta nahitaezko proposamenaren arabera.

8.- Araudi honen indarraldia onartua izaten den unean hasiko da eta 2016ko abenduaren 31n amaituko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda eta aho batez onartu da proposamena.

4.1 UNITATE EGIKARITZEKO URBANIZAZIO ZATI BATEAN EXEKUTATZEKO, UDALA ETA ORMAKen ARTEAN 2015-03-9AN SINATUTAKO HITZARMENAREN ALDAKETA.

Alkate jaunak (EAJ-PNV) hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du, hain zuzen ere:

Lehenik. 4.1 unitate egikaritzeko urbanizazioa zati batean exekutatzeko, Udala eta Ormak S.L.U.ren artean 2015-03-9an sinatutako hitzarmenaren aldaketari hasierako onespina ematea, jarraian adierazten terminoetan.

Bigarren. Aipatutako aldaketak jendaurrean jartzea, hogeitaz laneguneko epean iragarkia GAOean argitaratuz, ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen zazpigarren, 8 Xedapen Gehigarriak agindutakoaren arabera, adieraziz epe horretan alegazioarik ez bada aurkezten, behin betiko onartua geratuko dela.

Hirugarren. Alkate jaunari baimena ematea, Hitzarmenaren aldaketa sinatzeko jarraian transkribatzen den hitzarmenari hasierako onespina ematea eta

“4.1 UNITATE EGIKARITZEKO URBANIZAZIO ZATI BATEAN EXEKUTATZEKO, UDALA ETA ORMAKen ARTEAN 2015-03-9AN SINATUTAKO HITZARMENAREN ALDAKETA

Beasainen

BILDURIK

Alde batetik, AITOR ALDASORO ITURBE jauna, Beasaingo Udalaren Alkate-Lehendakaria 72.440.392-Y,, NA duena. Ekintza honetarako ahalmena, 2015eko azaroaren 26an Udalbatza Osoak hartutako erabakiak ematen dio.

Beste batetik, MAURICIO ARREGUI AULESTIARTE jauna, 34.102.278-V NA duena, ORMAK, S.L.U.ren izenean eta bere orde. Sozietate hau, Donostiako Fernando Mugica kalean, 11-2.ean Poligono Belartzan helbideratua dago eta B-20218970 IFK zenbakia du. Apoderatu gisa azaltzen da, José Carlos Arnedo Ruiz Notario jaunaren aurrean, 1999ko uztailaren 9an egindako eskrituraren arabera. Eskriturak, 2448 protokolo zenbakia du eta Gipuzkoako Merkatal Erregistroan inskribatuta azaltzen da, hain zuzen ere, 1024 Tomoan, 108 Orrialdean, SS-916 orrian, 6. inskripzioa osatuz.

AURREKARIAK

I.- 2011ko uztailaren 27an, Udala eta ORMAK, S.L.U.ren artean hirigintza-hitzarmena sinatu zen, Zazpiturrieta 4. areako 4.1 unitate egikaritzea kudeatu eta exekutatzeko.

II.- 2015eko martxoaren 9an, bi aldeek hitzarmen berria sinatu zuten aurrekoa aldatuz, Udalak eremu horretako urbanizazio zati bat egiteko. Hain zuzen ere, igogailu publikoa.

III.- Igogailu horren obrak esleitu arren (2015-03-18ko Gobernu Batzordeko erabakia), 2015-10-29an organo horrek erabaki zuen horretarako sinatutako kontratu administratiboa bertan behera uztea, proiektatu eta esleitutako moduan obrak egiteko arazo teknikoak daudelako.

IV.- Udal taldearen ustetan beharrezkoa denez J. M. Iturriotz eta Joan XXIII kaleen arteko kota ezberdinak saihesteko ekipamendua behar dela, tokiz aldatzea aztertu du eta bideragarritzat jo da eremuaren mendebaldean egitea, Zazpiturrieta kalera eramaten dituen eskaileren ondoan.

V.- Horretarako beharrezkoa da, Xehetasun Azterlana, Konpentsazio Proiektua eta Hirigintza Proiektua aldatzea.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. 2012-11-28an behin betiko onartutako Xehetasun Azterlana aldatzea.

Lehenengo hitzarmenaren eskema jarraituz, ORMAK, S.L.U.k enkargatuko du, bere kontura, Xehetasun Azterlanaren aldaketa, hori idatzi zuenari.

Bigarren. 2012-12-26an behin betiko onartutako Konpentsazio Proiektua bigarren aldiz aldatzea, beharrezkoa delako urbanizazio karga berrien banaketa egitea.

Lehenengo hitzarmenaren eskema jarraituz, ORMAK, S.L.U.k enkargatuko du, bere kontura, Konpentsazio Proiektuaren bigarren aldaketa, lehenengo proiektua idatzi zuenari.

Hirugarren. 2012-12-26an behin betiko onartutako Urbanizazio Proiektua bigarren aldiz aldatzea, igogailua tokiz aldatu delako.

Lehenengo hitzarmenaren eskema jarraituz, Udalak enkargatuko du, bere kontura, Urbanizazio Proiektuaren bigarren aldaketa, lehenengo proiektua idatzi zuenari.

Laugarren. Urbanizatzeko prozesuaren ekitaldiak hauek izango dira:

1.- Udalak igogailua eta urbanizazio osagarria exekutatu du (I Ekitaldia).

2.- ORMAK, S.L.U.k lehenengo ekitaldian (I. Ekitaldia) 3. lursailari dagokion etxebizitzaren eraikina egiteaz gain, 4. lursailari dagokion sotoa eta beheko oinak eta bi lursailei dagokien urbanizazioa exekutatu du.

3.- ORMAK, S.L.U.k bigarren ekitaldian (II. Ekitaldia), 4. lursailari dagokion etxebizitzaren eraikina egingo du (jasodura).

Bosgarren. Igogailu publikoa instalatzeko dagoen interes orokorra dela eta, Udala arduratuko da bere exekuzioaz eta funtzionatzeko beharrezkoa den aldameneko urbanizazioetaz.

Udalak obrak lizitatu ahal izateko, Urbanizazio Proiektuaren aldaketak igogailua eta urbanizazio osagarriaren "separata" aurreikusiko du.

Horren guztiaren kontratatze egikaritze aurrekontua, 274.507,67 €koa da. Horietatik, 238.717,56 € igogailuarenak dira eta gelditzen dena urbanizazio osagarriarena.

Seigarren. Igogailua tokiz aldatzeak, kostua murriztu egiten duenez eta horren ondorioz, eremu guztiaren urbanizazioaren kostua era jaitsi egiten denez, hau da:

- Eremua urbanizatzeko proposamena: 294.773,90 € (2012ko Urbanizazio Proiektua: 538.114,57 €. Horietatik, Beasain Lantzen-ek, 165.654,55 € egikaritu ditu: 63.942,92 € babes ofizialei dagokiena eta 101.711,63 €, zati batean, etxebizitzari zerbitzua emateko urbanizazioa).
- Toki berrian igogailua jartzea: 238.717,56 € (2012ko Urbanizazio Proiektuan aurreikusitakoa: 291.098,83 €).

Igogailua egikaritzea eta instalatzearen kostua, obraren azken ziurtagiritik ondorioztatzen dena izango da (segurtasun eta osasun azterlana, kalitate-kontrola eta hondarren kudeaketa barne) eta finantziazio portzentaia ondorengoa izango da:

- ORMAK, S.L.U.k, %60^a.
- Udalak, %40^a.

Udalak, ORMAK, S.L.U.ri igogailua egikaritzea eta instalatzeak duen egiaztatutako kostuaren %60^a fakturatuko dio, obren azken ziurtagiria onartutakoak.

ORMAK, S.L.U.k, jarraian aipatzen den epea izango du, dagokion ordainketa egiteko (diruaren interesa aplikatuz) kontzeptu hauengatik:

- Igogailuaren %60ren kostuari.
- Beasain Lantzen zor dion 101.711,63 €, exekutatutako urbanizaziogatik.

P4. lursailari dagokion etxebizitza promozioaren lehen erabilera eskatu eta hurrengo 30 egun barru, baina beti ere P3 eta P4 lursailek igogailua ordaintzeko duten afekzio-karga iraungi baino lehen egiten bada (zazpi urte 2013ko uztailetik kontatzen hasita, baldin eta aldez aurretik Konpentsazio Proiektua behin betiko likidatzen ez bada. Kasu honetan, ondorioa kargen kantzelaioa izango lirateke (ikus uztailaren 4ko 1093/1997 Erret Dekretuaren 20. artikulua)."

Santiago Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak):
"No nos vamos a oponer, pero nos vamos a abstener porque no hemos recibido la información con tiempo suficiente para poder analizarlo y tampoco sabemos el plazo que será necesario para su ejecución."

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): "Igogailua egitearen alde gaude, baina informazioa ez da behar bezala pasa. Proiektua hitzarmenaren aurretik onartu egin beharko litzateke. Baina hau, hau da, informazioa ez zehaztea, ez da lehenengo aldia gertatzen dena. Ez dira zalantzan jartzen hitzarmen-zirriborroan azaltzen diren datu ekonomikoak, baina gure kezkak baditugu. Badakit hau ez dela ez tokia eta ezta ere momentua hau esateko. Batzordean aztertu beharko litzateke proiektua eta hitzarmena bat datozen. Horren ondorioz, gure jarrera abstentzioarena izango da."

Alkate jaunak (EAJ_PNV): "Prozedura jarraitu da. Lehendabizi Xehetasun Azterlana onartu behar da, gero Konpentsazio Proiektua eta azkenik, Hirigintza Proiektua. Eskuarlean izan dugun informazio garrantzitsuena eduki ahala bidali dizuegu. Igogailua tokiz aldatzearen ondorioz, sortzen diren kostuak hitzarmenean aurreikusten dira. Zalantzak izatea ulertzen dut, zeren eta proiektuak ekar ditzake datu batzuen aldaketa. Jakin ahala batzordean emango dira zehaztasun gehiago. Guretzat garrantzitsuena dena da, aldaketak ekarri duen onura herritarrentzat. Hitzarmenean gehienezko zifrak aurreikusten dira."

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Guk ez dugu esaten prozedura jarraitu ez denik, baina ORMAKek gu baino lehenago izan du proiektuaren berri. Orain lau hilabete jaso genituen marrazkiak (bozeto), baina oraindik proiektua ez dugu jaso.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV).

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 7 (BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Horren ondorioz, proposamena gehiengo absolutuarekin onartu da.

5.- FINANTZA IRAUNKORTASUNA EBALUATZEKO TXOSTENAREN KOMUNIKAZIOA UDALBATZARRARI.

Kontuhartzaileak egindako ondorengo txostenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

1.- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren 21.1 artikulua ondorengo xedatzen du: Aurrekontu-egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu-araua bete ezean, administrazio urratzaileak urtebeteko epean haiek bete ahal izatea bermatuko duen plan ekonomiko-finantzario bat prestatu beharko du.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, 1/2013 Foru Arauak emandako eskumena erabiliz, “Gipuzkoako Toki Entitateek jarraitu beharreko jarraibidea 2015erako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko, aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko arauditik eratorritako defizitari eta zor publikoari lotutako helburuak betetze aldera” onartu du. Araudi honen 1 eta 3 erregeletan xedatzen denez, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuaren araua ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari entitateko Udalbatzarrari komunikazio bat helarazi beharko zaio, zirkunstantzia hori adierazita, Kontuhartzaileak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeke egiten duen txosten batekin batera.

Aipatutako xedapenetan adierazitakoa betez, igortzen da ondorengo

TXOSTENA

1.-2015 ekitaldirako hasierako aurrekontua aurrekontuaren egonkortasun eta finantzen iraunkortasunaren helburuak betaz onartu zen baina gastu arauaren helburuak urratuz onartua izan zen.

Helburuaren urraketa ondorioz, aipatutako 2054 urterako Jarraibideetan” xedatutakoaren arabera, Udalbatzari, Kontuhartzaileak sinatutako txostenaren berri eman baitzitzaion, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuz, ondorengo baldintza guztiak betetzen direnez:

- 2014ko aurrekontuaren likidazioan, edo horren ezean bere aurreikuspenean, diruzaintza gerakina eta aurrezki garbia positiboak izatea.

- 2015erako zor publikoaren helburua betetzea.

- 2015erako defizit helburua betetzea.

2.- 2014ko aurrekontuaren likidazioaren espedientea DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDO positiboarekin likidatu da, kasu guztietan, ondorengo kopuruengatik:

Udala: 6.796.297,92 euro.

Euskaltegi: 113.470,33 euro.

Kiroldegia: 254.294,89 euro.

Musika Eskola: 111.284,20 euro.

3.- Gaur egun Udalaren aurrekontu propioan ondorengoak formalizatu dira:

- 5 kreditu txertaketa espediente 1.713.544,25 euroko kopuruan.

- 10 kreditu gehigarri espediente 1.438.407,79 euroan guztira, zati batean beste kreditu batzuen bajekin finantzatuak.

Espediente horiek finantzatzeko erabilitako diruzaintzako gerakin likidoa 2.810.121,03 eurokoa izan da.

Organismo autonomoetan bina kreditu gehigarrien espediente formalizatu dira (diruzaintzako gerakinarekin finantzatuak) ondorengo kopuruengatik:

- Musika Eskola: 26.080,00

- Kirolegia: 9.550,00

- Euskaltegi: 16.465,00

Eta kreditu txertaketa espediente bat kiroldegia 194.730,53 euroengatik diruzaintzako gerakinarekin finantzatua ere.

Kreditu gehikuntza horien ondorioz aurrekontu egonkortasunaren eta gastu mugaren helburuak urratuta gertatu dira, baina diruzaintzako gerakinaren erabilpenaren ondoriozko urraketa denez, ez da beharrezkoa plan ekonomiko-finantziaroa egitea, aipatutako Jarraibidearen 1 eta 3 erregelak xedatutakoaren babespean, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatuko duen Kontuhartzailetzako txostenarekin ordezkatzeko baita.

4.- Aipatutako kreditu gehikuntzaren guztizko kopurutik, **2.300.576,41€** euro **inbertsio gastuak** dira, hau da, gastu ez errepikariak eta gastu arruntaren gehikuntza nabarmenik ondorioztatuko ez dutenak ere, eta beraz, Udalaren finantza iraunkortasuna konprometitzen ez dutenak.

5.- Aipatutako kreditu aldaketak barne hartzen dituen aurrekontu **bateratuaren Aurrezki garbia**, positiboa da **1.626.903,29 euroko** kopuruan. (Sarrera arruntak: 16.354.744,37€ Gastu arruntak: 14.200.841,08€, zorraren amortizazio: 527.000,00€).

*Beraz, txosten honek ondorengo adierazten du, alegia, egindako kreditu aldaketen ondorioz AURREKONTU EGONKORTASUNAREN HELBURUA ETA GASTU MUGA URRATUTA gertatu arren, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da **Beasaingo Udalaren EGOERA FINANTZARIOA IRAUNKORRA dela eta aipatutako urraketen ondorioz ez dela konprometituta gertatzen.***

6.- MOZIOA. Beasaingo EH BILDUK aurkeztutako mozioa euskerako egunari buruz.

Alkate jaunak (EAJ-PNV), Garbiñe Zurutuza (Beasaingo EH BILDU) zinegotziari hitza eman dio eta honek irakurri du EAJ-PNVren eta Beasaingo EH BILDUren artean adostutako mozioa:

“Gaur, azaroaren 26an, Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperetan (abendua 3), Beasaingo Udalak honako adierazpen instituzionala zabaltu nahi du.

Euskara, herritar guztion hizkuntza da, euskaldun egiten gaituena da, euskarak guztiok batu eta aberasten gaituen hizkuntza behar du, beraz Beasaingo Udalak euskararen inguruan, adierazpen honen adostasun osoan oinarriturik, herritar eleaniztunak lortzeko pausoak egin nahi ditu.

Aurrerapauso garrantzitsuak egin dira euskararen normalizazio eta biziberritze bidean. Azken urte hauetan, euskarak hazkunde prozesua izan du, eta, neurri handian, biziberritu egin da. Hiru izan dira prozesu eredugarri honen zutabe nagusiak: herritar askoren engaiamendua euskararekiko, hezkuntza eta helduen euskalduntzea. Azken hamarkada hauetan, milaka eta milaka izan dira heldutan euskara ikastea erabaki duten herritarrak, eta milaka, baita ere, euskararen aldeko hautua eginez, euskararik jakin edo jakin ez, euren seme-alabak euskaraz hezteko aukera egin dutenak.

Beasaingo Udalak 2015eko abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunean, euskarara hurbiltzeko hautua egin duten pertsonen aitormena egin nahi die, euskararenganako erakutsi duten atxikimendua eta hizkuntza hori ikasteko egin duten ahaleginarengatik. Euskararen biziberritze prozesua etengabe elikatzen dute pertsona

horiek, eta haien guztien gogoa, kemena eta ahalegina aitortu eta omendu nahi ditugu.

Beasaingo Udalak berretsi nahi du herritar eleaniztunak lortzeko helburua, uste baitu eleaniztasunak eragin ona duela gure gizartearentzat, bizikidetza demokratikoari eta gizarte-kohesioari begira. Bide beretik, Legebiltzarrak erraztasunak bilatuko ditu euskararen ezagumendua helarazteko ikasi nahi duten guztiei.

Halaber, Beasaingo Udalak konpromisoa hartzen du euskararen erabileran normalizazioan urrats sendoak egiten jarraitzeko. Aurrera begira, erabilera baita gakoa eta Eusko Legebiltzarrak hitzematen du aukera berriak irekiko dituela euskara erabiltzeko, eta horretarako, errespetatuko dituela hitzun guztien hizkuntza- eskubideak eta euskaraz egiteko askatasuna.

Erakundeei eta herritarrei dei egiten diegu elkarrek in aurrera segitzeko. Euskararen aldeko egoeran euskara da, beste ezer baino lehen, hizkuntza garaikidea, berritzailea eta gaurkotua, gure gizarteak erabiltzen eta sustatzen jarraitu behar duena.”

Hitza egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Santi Urdampilleta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “No se nos ha mandado la moción traducida, pero nos gustaría que la próxima vez nos la mandaraís.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

7- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2015-10-26tik 2015-11-21era bitarte emandako Ebazpenak.

Alkate jaunak (EAJ-PNV), 2015-10-26tik 2015-11-21era bitarte emandako Ebazpenen berri eman du.

8.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.